

Sepultura

Berpizte indartsua

Sepultura
Brasilgo taldeak
Bilboko Kasilla
kiroldegian joko
du datorren
asteartean
Anthrax
taldearekin
batera
Max Cavallera
abeslariak
alde egin eta
taldeak
Against diskoa
kaleratu du
Derrick
Green estatu
batuarra da
taldeko
kantari berria.



Overfriend-en, aritu-
ta zegoen Derrick, eta
azken talde horren
maketa bat bidali
zuen Sepulturakoei
entzun zezaten:
«Chocke abestiaren
grabazio bat bidali
genion eta ahotso jar-
tzeko eskatu genion.
Asko gustatu zitzaiz-
gun, eta Brasilera
etortzeko gonbita
egin genion. Hasiera-
hasieratik konturatu
ginen gure gizona ze-
la, ez bakarrik abes-
ten duen eragatik,
baizik eta gu bezala-
koa delako», esan di-
gu Andreasek.

Nahiz eta Max or-
dezkatzaera etorri, De-
rrickek garbi zuen
Cavalleraen estiloa
imitatzea ezinezkoa
izango zela: «Ez ne-
kien ni zer norabidetan joate-
nahi zuten, baina garbi nuen
Maxen berdina zen abeslari
bat izan nahi bazuten ez nin-
tzatekeela jokoan sartuko».

Talde berria izanik, jo-
an zen urtean itzuleraren dis-
koa grabatu zuen Sepultu-
rak: *Against*. Roots-en landu-
tako erritmo tribalak guztiz
baztertu gabe, aurreko disko-
etako *trash*-era itzuli da tal-
dea, baina badu japoniar uki-
tu bat ere, Andreasek dioe-
nez: «*Kaimatachi* kantua Ko-
do perkusio talde japoniarra-
rekin grabatu genuen. Lau
egun eman genituen Japo-
nian, eta oso interesgarria
izan zen beste musika kultu-
ra bateko elementuak erabil-
tzea. Diskoak badu ukitu ja-
poniar bat, baina ez da Roots-
en azaltzen zen eragin brasil-
darra bezain nabarmena».

Sepultura izango da dato-
rren asteeko kontzertuko iza-
rra, baina Brasilgo taldearen
aurretik, metalaren arloan
bere tokia izan duen beste tal-
de batek joko du; Anthraxek
hain zuzen ere.

mikel lizaralde

Sepultura itzuli egin
da. Orain dela hiru ur-
te Roots diskoak izan-
dako arrakasta kontuan iza-
nik, ez dirudi arraroa denik;
baina, harrezkeroztik talde
barruan izan diren aldaketei
erreparatzen badiegu, or-
dea, ez zegoen horren argi
Brasilgo talde ezagunenare-
kin zer gertatuko zen. Max
Cavalleraen eta beste talde-
kideen arteko harremanak
ez ziren orduan oso onak,
eta taldeko *frontman*-ak tal-
dea uztea erabaki zuen azke-

nean, orain dela urte pare-
bat. Cavallera Sepulturako
abeslaria eta konpo-
sitorea zen, eta
baita taldeko kide
ezagunena ere.
Hark taldea utzi
eta Soulfly talde be-
rria sortu ondoren, jende as-
kok hilda ikusi zuen Sepultu-
ra. Taldean gelditu ziren kide-
ek ere ez zuten batere garbi
zer gertatuko zen: «Urte eta

erdi honetan aukera guztiak
aztertu ditugu. Dena pikotara
bidaltzea ere pasatu zitzaiz-

Derrick Green estatubatuarra da Sepulturako abeslari berria

gun burutik,
baina une la-
rriak ziren eta ez genuen ino-
lako erabakirik hartu. Lasai
hartu genuen, dena ondo


pentsatzeko», azaldu du An-
dreas Kisser taldeko gitarra
joleak.

Maxek taldea utzi ondoren,
gainerako kideek (Andreas,

Igor
Caval-
era
eta

Paulo Pinto) abesti berriak
egiteari ekin zioten, taldeare-
kin zer egin jakiteko asmoz.
Igorrek berak azaldu duenez,
horrek eman zion taldeari au-
rrera segitzeko indarra: «Ez
genekien Sepultura izena
erabiltzen jarraitu behar ge-
nuen. Abesti batzuk idatziz
eta Sepulturaren antzik ez
bazuten izen hori ez erabil-
tzea hitzartu genuen. Baina
abesti batzuk genituenean,
ikusi genuen izenarekin ja-
rraitzea guztiz arrazoitua ze-
goela».

Maxek taldea utzi zuenez,
abeslari berri bat du gaur
egun Sepulturak, Derrick
Green estatu batuarra. Biga-
rren mailako *hard-core* talde
pare batean, Outface eta



GARAJE H "al duro y sin guante"



GORAX HERRIAK CD-MC



MOTIVES "Chansons de lutte" "Borroka kantak"